



B2 maila



Idazmen-proba



Idazmena

Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta, ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxieneko hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **75 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

B2 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen arabeko lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anafarak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Jokabide desegokiak eskola-kirolean

Egoera:

Eskola-kiroleko monitore zara, ikasi zenuen ikastetxean. Ikasturte honetan areagotu egin dira ikusleen portaera desegokiak asteburueta partidetan: zenbait gurasoren irainak, mehatxuak eta abar. Hori dela eta, beste monitoreekin hitz egin ondoren, ikastetxeko aldizkarian egoera salatzea erabaki duzue.

Egitekoa:

Bidali gutuna monitoreen izenean ikastetxeko aldizkarira, familiei zuzenduta, iritzia emateko eta egoera salatzeko. Horretarako:

- Adierazi nolako garrantzia duen eskola-kirolak gaztetxoentzat, zuen iritziz.
- Salatu zenbait partidatan bizi izan dituzuen jokabide desegokiak.
- Eman jokabide horiei buruzko iritzia eta adierazi zer ondorio duten gaztetxoengan.
- Proposatu konponbide batzuk, gurasoen jarrera eredugarria izan dadin.

2. gaia: Kultur elkarteak 40 urte

Egoera:

Herriko kultur elkarte bateko lehendakaria zara. Aurten 40 urte beteko ditu elkarteak eta bazkide guztiekin ospatu nahi zenukete zuzendaritzako kideok. Horretarako, kultur egun berezia antolatu, eta, ondoren, afaria egin nahi duzue. Gutun bat prestatzea erabaki duzue bazkide guztiei bidaltzeko.

Egitekoa:

Idatzi gutuna, kultur elkarteko zuzendaritzaren izenean, bazkideei zuzenduta, elkartearen lana azpimarratzeko eta egun berezi horretan parte hartzera animatzeko. Horretarako:

- Kontatu, labur, zer helbururekin sortu zen kultur elkarte.
- Azaldu zergatik izan den garrantzitsua kultur elkarteak herrian orain arte egindako lana.
- Adierazi hemendik aurrera nolako jarduerak bultzatu nahi zenituzketen.
- Azaldu nolako kultur eguna prestatu duzuen eta animatu bazkide guztiak ekitaldietan eta afarian parte hartzera.